



## 2020an hasiko dira Hegoaldeko Tren Saihesbidearen lanak

Eusko Jaurlaritzak Bilboko Portuaren Hegoaldeko Tren Saihesbidea egingo du, eta dirua Euskadik estatuari ordaintzen dion kupotik kenduko da. Lanak 2020an hasiko dira, eta Serantes eta Olabeagako tunelen arteko zatia eginez hasiko dira.

Akordioak 375 milioi euroko partida jasotzen du 2022ra arte, 1. fasea (Serantes-Olabeaga tunela) idatzi eta egiteko, eta 2. fasea (Barakaldo-Basauri) idazteko.



Arantxa Tapia Ekonomiaren sailburuak Ezkerraldeko bizilagunen bizi kalitatea hobetuko duela adierazi du. Orain arte, Bilboko Portuko zama trenek aldirietako trenentzako trenbidea erabiltzen dute.

Tapiak azaldu duenez, Ortuella, Trapagaran, Santurtzi, Portugalete, Sestao eta Barakaldo udalerrietan pilaketak sortzen ditu eta bertako bizilagunei kalte egiten die egoera horrek. Udalerri horien erdialdetik pasatzen da aldirietako trenbideen sarea, eta zama trenak gauean ere garraiatzen dute.

Trenbide berria herri horien erdigunetik aldentzeko da eta trenaren bidez salgaien trafikoa handitzeko aukera emango du. Europar Batasunaren Atlantikoko korridoreko trenbide sarearen parte izango da, eta Euskadi-Kantabria konexioa abiadura handian egingo du.

Halaber, honek lehiakortasun handiagoa emango die Bilboko Portuari eta euskal enpresei; izan ere, euskal logistika sarea (portuak, aireportuak, trenak eta errepideak) "horren zerbitzura" egongo da. Sailburuak gaur bertan emango die Ezkerraldeko udalerrietako alkateei lortutako akordioaren berri.



## Europako legatzaren ugalketa aztertzen ari dira

Iparraldeko eta Ekialdeko Atlantikoko arrantzarik garrantzitsuenetako bat da 'Merluccius merluccius' legatza. Hain zuzen, Espainiakoak dira Europako lehorreratze gehienak (guztien %30), bigarren eta hirugarren postuetan Frantzia eta Portugal daudelarik. Legatzak, arrantzarako duen garrantziaz gain, zeregin garrantzitsua du itsas ekosisteman,

pelagiko txikiaren harraparia baita eta, aldi berean, marrazo eta beste harrapari batzuen elikagaia.

Horrenbesteko garrantzia duen espeziea ikertzeko ekimen batean hartuko du parte AZTI itsas ikerketarako zentroak. Zehazki, legatz-larben, larba osteko organismoen eta ale gazteen ugaritasuna eta espazioan duten banaketa zehaztuko dute hegoaldeko legatz-stocka dagoen Fisterra eta Estaca de Bares eremuen arteko galiziar plataforman

Ikertzaileak astelehenean, abiatu ziren Vigoko portutik 'Sarmiento de Gamboa' ontzi ozeanografikoan, eta hamabost egun emango dituzte bertan.

Azterketaren helburu zehatza da legatzak bizirik irauteko faktorerik garrantzitsuenak ezagutzea, lehenengo bizitza-faseetatik hasi eta legatz heldua den faseraino. Kanpainan, aztertuko da Galiziako kostan zenbat legatz-larba, larba osteko organismo eta ale gazte dauden eta espazioan nola dauden banatuta.

## Beste Maider bat dator oholtzara

Maider Zabalegik (Oiartzun, 1976) 2004an egin zuen azkeneko agerraldi publikoa. Alaitz eta Maider bikote arrakastatsuko kide zen, Alaitzek soinu txikia jotzen zuelarik, eta berak panderoa. Trikiti ibilbidea bukatu zen eta Maider Zabalegi erabat aldendu zen musika mundutik, elkarrizketarik ez onartzeraino. Gero ama izan zen. Baina poliki-poliki musikaren harra handitzen handitzen joan zen, eta iaz Elkar diskoetxera azaldu zen, esku artean kanta berrien maketa zeramala. Diskoetxeak musikari laguntzaile batzuk proposatu zizkion eta orain kalean da disko berria: 'Maider. Zuei' (Elkar diskoetxea).



Pop tankerako hamar kantu dakartza diskoak, horietako bat 'Aitonari' delakoa. «Aitonaren minbizi prozesua bizitu genuen. Hiltzen ari zelarrik, kantu honetako doinua konposatu nuen. Eta hil zenean, orain dela bi urte, leherketa handi bat gertatu zen, gitarra hartu eta huraxe jo nuen. Handik aurrera, konposatu eta konposatu jardun nintzen. Goizeko hiruretan, esnatu eta konposatzeari ekiten nion», adierazi du diskoa aurkeztean.

## ALEX TXIKON EUSKADIN DAGOENEKO



Atzo arratsaldean iritsi zen Alex Txikon Loiuko aireportura, ia hiru hilabetez luzatu den Everesteko espedizioa amaitutzat eman ostean. Gailurra zapaltzea lortu ez arren, egindako lana mardula izan da, eta halaxe ulertu dute ongietorri beroa eskaini zioten lagun eta senideek mendizaleari. Aurrekua, lore sorta, besarkadak... ez zen ezertxo ere falta izan.

Lemoako alpinistak Everest neguan eta oxigeno barik Everest igotzeko saiakera berria duela gogoan adierazi du.

### TXIKI EGUNA LASESARREN



12:00



### BARAKALDO CF - CD MENSAJERO

Hilaren 19an Aitaren Eguna ospatu ohi da, baina Barakaldo CF taldeak Txikiren Eguna bilakatu nahi du. Hau dela eta sarrera doakoa izango da 14 urte baino gutxiagokoentzat. Gainera, Elikagaien Bankuarekin elkartasuna adierazteko guztiek jakiak eramanez ahal izango dituzte, eta sarreran bertan utzi.

**EGURALDIA** Larunbatean, hodeiak eta ostarteak izango dira eta tenperatura jeitsiko da. **Igandean**, aldiz, giro eguzkitsua espero dugu oro har. Tenperatura maximoek gora egingo dute apur bat.

## Ezinegona Mukusuluba ikastetxean

Ezinegona sortu da Mukusuluba ikastetxearen erkidegoan, ikastetxeak astebururo jasotako erasoak direla eta. Izan ere, gazte talde bat sartu zen ikastetxean berriro ere pasa den asteburuan, eta kalte handiak eragin zituen. Ikastetxearen kontra egindako laugarren eraso jarraia izan da.

Sarrerako hainbat lorontzi eta landare apurtu zuen taldeak baita patioko sarreran bertan zeuden beste zenbait landare. Halaber Haur Hezkuntzako patioko zutabeen babesak moztu zituzten tresna zorrotz batez. Gainera, patioko zakarrontzi handi bat desagertu da azken hilabeteetan.

Oraindik ez dira harrapatu kalte hauen eragileak. Eskolako arduradunek eta hainbat auzokidek poliziarri deitu bazioten ere, eskolara iritsi zirenerako agenteek ez zituzten erasotzaileak topatu.

Eraso hauetan sortutako galerak ebaluatzeke daude baina mila euro baino gehiagokoak izan ahal dira.

**Gozoki bat nire partez** Martxan dago Mendikoa Ikasle Gurasoen Elkarteak bultzatutako elkartasun kanpaina berri bat. Ekimen honek Greziako kanpamenduetan dauden ume errefuxiatuei litxarrerria bidaltzea du helburu, normaltasun kutxu bat emateko asmoz. Norberak bere ahalmenaren arabera, gozokiren bat ekartzea eskatu da. Soldata jasotzen duzu astebururo? Badituzu zentimo batzuk elkartasunerako?

